



Jl/ig

E-OH-013/19  
03-OH

## EBAZPENA – RESOLUCIÓN

Donostia, 2019ko martxoaren 8a  
San Sebastián, 8 de marzo de 2019

Hondarribia Jaizkibelgo mendi magalaren beheko aldean zehar zabaltzen da. Mendi magal hauek arro txikiak sortzen ditu bere ibilbideek hiria zehazkatzen dutelarik. Ibar horietatik datozen ur emariak hiriguneraino iristen dira sanemenduko hodi biltzaileetara sartuz, baina hauek ez dute nahikoa ahalmen hidraulikorik eta gainezka egiten dute. Honek guztiak etxebizitzaren beheko solairuak urak hartzea sortarazten du eta gainazalean egindako zirkulazioan eragina dauka hiriguneko kanpo arroetan sortutako ur emarien ondorioz.

Kontratazio honen bidez Jaizkibel mendiaren ipar-ekialdeko magaleko aitzinako ubideetara etorritako arroen euri-urak hustutzeko beharrezkoak diren azpiegitura hidraulikoak definituko dituen proiektuaren idazketa egin nahi da. Euri-uren sare berri hau sortzeko arrazoia kanpoko arroetako euri-ur hauek itsasoratzea da, noizbehinka hiriguneko esparru hauetan sortzen diren uholdeak ekidin ahal izateko eta egun dagoen banakako saneamendu sarea sare banatzaile batean bilakatzearen komenigarritasunari erantzuteko. Sare berri honetan garraiatutako euri-uren gainazaleko isurketak ez lirateke gorotzen saneamenduen sarearekin nahastuko, Txingudiko ur hondakinak garbitzeko estazioan depurazio lanak erraztuz.

Horretarako, Obra Hidraulikoetako Zerbitzuak kontratazio hori arautuko duen baldintza teknikoen agiria idatzi du (dokumentu tekniko bilduma). Lan horien lizitazio aurrekontua 31.000,00 euro da, gehi 6.510,00 €, BEZ kontzeptuan (% 21), guztira 37.510,00 €. Kontratua gauzatzeko epea, ordea, 4 hilabetekoa izango da, kontratua izenpetzen den egunetik aurrera. Kontratuaren balio zenbatetsia 34.100,00 € da, BEZa kanpo, hala baitio 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuena, 101. artikuluan.

Lanen zenbatekoa ikusirik, bidezkotzat jotzen dugu haren kontratazioa prozedura ireki erraztuaren bidez egitea, hala aurreikusten baitu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuena, 159.6 artikuluan.

Hondarribia se extiende a lo largo de la parte baja de las laderas del monte Jaizkibel, las cuales forman pequeñas cuencas que en su trazado atraviesan la ciudad. Los caudales procedentes de dichas vaguadas llegan a la zona urbana y entran en los colectores de saneamiento, pero estos no tienen suficiente capacidad hidráulica y acaban rebosando. La consecuencia de todo esto es la inundación de los bajos de las viviendas y la circulación por la superficie de calzada del caudal generado en las cuencas exteriores al casco urbano.

Mediante esta contratación, se quiere redactar un proyecto que defina las infraestructuras hidráulicas necesarias para la evacuación de las aguas pluviales de las cuencas que vierten a las antiguas regatas de la ladera noreste del monte Jaizkibel, situadas sobre parte del casco urbano del municipio de Hondarribia. Esta nueva red de pluviales está motivada por la necesidad de facilitar el desagüe a la bahía de las cuencas exteriores a las zonas urbanizadas para evitar las inundaciones que se producen periódicamente en esas zonas, y por la conveniencia de transformar la red de saneamiento unitaria actual en una red separativa, en la cual los caudales de escorrentía superficial de lluvia no entren en la red de saneamiento de fecales, facilitándose el tratamiento de depuración en la E.D.A.R. de Txingudi.

A tal efecto, el Servicio de Obras Hidráulicas ha redactado el Pliego de Prescripciones Técnicas (conjunto de documentación técnica) que regirán la contratación citada, cuyo presupuesto de licitación asciende al importe de 31.000,00 €, más 6.510,00 € en concepto de I.V.A. (21%), total 37.510,00 €, siendo el plazo de ejecución del contrato de 4 meses desde su formalización. El valor estimado del contrato a los efectos de los artículos 101 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público es de 34.100,00, € IVA excluido.

Dada la cuantía de los trabajos, se considera procedente acudir al procedimiento abierto simplificado abreviado, según lo previsto en el artículo 159.6 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.



Aurrekoa aintzat hartuta, zuzendari nagusi honek 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren erakunde antolaketa, gobernu eta administrazioari buruzkoak, 47.1 artikuluan, 22/2016 Foru Dekretuak, uztailaren 19koak, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, 4.2.2.a) artikuluan xedatutakoarekin lotuta, egozten dizkion eskumenez baliatuta,

### EBAZTEN DU

**Lehenengo.-** Onartzea Jaizkibelen ekialdeko magaleko erreketan (Hondarribia) uholdeak prebenitzeko proiektua -2. fasea: 6 eta 8 zenbakiko kolektoreak- idazteko laguntza zerbitzuen kontratazio espedientea (2019/13-SA-ZL). Oinarrizko lizitazio aurrekontua 37.510,00 € da, eta balio zenbatetsia, berriz, 34.100,00 €. Kontratua gauzatzeko epea 4 hilabetekoa izango da kontratua izenpetzen den egunetik aurrera.

**Bigarren.-** Onartzea baldintza administratibo berezien agiria eta kontratazio espedientea, eta abian jartzea kontratua esleitzeko prozedura ireki erraztu laburtua.

**Hirugarren.-** Baimentzea 37.510,00 euroko gastua aurrekontuko 1.0920.200.612.03.01.2019 kontu sailaren kargura.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Interesatuek ebazpen honen aurka GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokete Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko foru diputatuari, jakinarazpenaren edo argitalpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO EPEAN. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

En virtud de cuanto antecede, este Director General, en uso de las facultades conferidas por el artículo 47.1 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en relación con el artículo 4.2.2.a del Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas,

### RESUELVE

**Primero.-** Aprobar el expediente de contratación de servicios de apoyo a la redacción del proyecto de prevención de inundaciones de las regatas de la ladera este de Jaizkibel (Hondarribia), Fase 2: colectores 6 y 8 (2019/13-SA-ZL), con un presupuesto base de licitación de 37.510,00 €, y un valor estimado de 34.100,00, siendo el plazo de ejecución de cuatro meses desde su formalización.

**Segundo.-** Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares y el expediente de contratación, y disponer la apertura del procedimiento de adjudicación por procedimiento abierto simplificado abreviado.

**Tercero.-** Autorizar un gasto de 37.510,00 euros con cargo a la partidas presupuestaria 1.0920.200.612.03.01.2019.

La presente Resolución no pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer RECURSO DE ALZADA ante el Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas en el plazo máximo de UN MES contado a partir del día siguiente al de su notificación o publicación, sin perjuicio de utilizar cualquier otro recurso que estimen pertinente.

**OBRA HIDRAULIKOETAKO ZUZENDARI NAGUSIA,  
EL DIRECTOR GENERAL DE OBRAS HIDRAULICAS,**

Izp./Fdo.: Félix Asensio Robles

